

III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO HAUTESKUNDE BATZORDEA

Arabako Lurralde Historikoko Hauteskunde Batzordea eratzea Eusko Legebiltzarreko hurrengo hauteskundeetarako, 2020ko uztailaren 12an egingo dira

Hauteskundeen Araubide Orokorraren Lege Organikoak 14.3 artikuluan eta Eusko Legebiltzarreko Hauteskunde Legeak 31.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, eta Lehendakariak, maiatzaren 18ko 11/2020 Dekretu bidez, 2020ko uztailaren 12an hauteskunde autonomikoak egiteko deia egin duenez gero, honen bidez, guztiek jakin dezaten, jakinarazten da Arabako Lurralde Historikoko Hauteskunde Batzordea eratuko duten kideen zerrenda, zeinak Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Batzorde Iraunkorrek izendatu zituen, 2020ko maiatzaren 20an egindako bilkuran.

Batzordekide judizialak:

Mercedes Guerrero Romeo, Arabako Probintzia Auzitegiko lehendakaria.

Elena Cabero Montero, Arabako Probintzia Auzitegiko Bigarren Sekzioko magistratua.

Iñigo Madaria Azcoitia, Arabako Probintzia Auzitegiko Lehenengo Sekzioko magistratua.

Batzordeko idazkaria: Juan Luis Sanchón Martínez, Arabako Probintzia Auzitegiko Lehen Sekzioko Justizia Administrazioako letratua.

Aurreko batzordekide judizialek arauz eratzen dute Arabako Hauteskunde Batzordea, eta batzordeko lehendakari hautatu dute Mercedes Guerrero Romeo.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko maiatzaren 21a

Batzordeko idazkaria

JUAN LUIS SANCHÓN MARTÍNEZ